

Transmisio-kanala

Transmisio-kanalak hainbat ezaugarriren arabera sailka daitezke. Garraiatzen duten seinale-motaren arabera, *digitalak* edo *analogikoak* izan daitezke. Transmisioaren noranzkoaren arabera, ostera, *joanerako kanalak* (erabiltzaileak datuak transmititzeko) edo *itzulerakoak* (alderantzizko noranzkoa dutenak) izan daitezke. Seinalizaziorako erabiltzen den kanalar *seinalizazio-kanal* esaten zaio, eta *irradi-kanalak* irradi-uhinak transmititzeko adinako banda-zabalera dutenak dira. Erabiltzaile jakin batentzat edo erabilera jakin baterako erreserbatzen direnak, berriz, *kanal dedikatuak* dira. ISDN sarean bi kanal bereizten dira: *B kanala*, datuak eta ahotsa transmititzeko erabiltzen dena, eta *D kanala*, kontrol-mezuak eta deiei buruzko datuak transmititzeko erabiltzen dena.

Bai kanalaren artean bai kanal bereko seinaleen artean interferentziak sor daitezke, antzeko maiztasuna duten uhinak gainezarri egiten direlako eta gainezartze horrek anplitude-aldaketak eragiten dituelako.